



Arartekoaren Ebazpena, 2012ko martxoaren 23koa. Horren bidez Aldats udal pilotalekutik datozen zaratei buruz planteatutako kexa espedientea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Debako herritar batek, auzo elkarte bat ordezkatuaz, Aldats udal pilotalekuak eragiten dituen oztopoak salatu ditu erakunde honen aurrean.

Zehatz esateko, pilotalekua ez dagoela erabat itxita adierazten du eta ondorioz, barruko zarata areagotuta proiektatzen da inguruko etxebizitzetan.

Gainera, pilotalekua erabiltzen da aisia eta jai arloko udalerriko ospakizun guztietarako eta kasu horietan indar handiko soinu igorgailuak erabiltzen dira.

Era berean, jaialdi horiek gaueko ordu txikiak arte luzatzen dira batzuetan.

2. Kexa sustatu duenaren gogoetak kontuan izanda, Arartekoaren erakundeak kexa espedientea tramitatzea erabaki du (2227/2011 erreferentzia) eta Debako Udalari informazioa eskatzea, gabezia horiek zuzentzeko aurreikusi zituen jardueren berri izateko.

2012ko otsailaren 7an sartu da erakunde honen sarrera erregistroan Debako Udalaren erantzuna eta egindako jardueren berri ematen digu:

Udalak igorritako informazioan jakinarazten da:

“Aldats pilotalekua zabalik egoten da egunero, 9:00.21:30.

Eragozpen horiei aurre egin eta horiek birbideratzeko asmoz bilera bat egin genuen, joan den urtarrilaren 24an, Debako Udalak deituta, frontoi inguruan bizi direnekin.”

Deitutako bileran, bereziki bi alderdi dira auzotarren kezka sortzen dutenak

1. *Pala eta paleta jokoak eragindako eragozpenak*
2. *Kultur izaera eta jai giroko hainbat jarduera frontoian antolatzeagatikeratortako eragozpenak*

Lehenengo alderdiari dagokionez, Udalak, arkitekto teknikoak txostena egin ondoren, hau dio:





"...ordutegi horretan gehien-gehien praktikatzen den gomazko paleta modalitateak eragindako hotsa indarrean dagoen araudiaren barruan sartzen da."

Nolanahi ere, beste hau gehitzen du:

"Txosten hori osatze aldera erantsi behar dugu pala motzeko jokoak gutxigatik gainditzen duela araudia."

Planteatutako bigarren alorrari dagokionez, kultur eta jai arloko jarduerak sortutako eragozpenei dagokienez, gertueneko etxebizitzaren barruan 60 dB(A) kalkulatu dira.

Amaitzeko, auzotarren eragozpenak txikitzeko, Udalak:

"...baldintza batzuk zehaztu eta eskatuko dizkie eskatzaileei, baimenak ukatzera ere iritsi ahal izango delarik baldintza horiek ez direla beteko uste badu."

Ingeniaritza akustikoan espezialistak diren bi enprekin jarri da harremanetan, frontoia (partzialki bederen)."

Aurrekariak gogoan izanda, egokia iruditu zaigu Debako Udalarari aztertzen ari garen gaiari buruzko gogoeta batzuk igortzea.

Gogoetak

1. Arartekotik zenbait balorazio egin dugu gai honi buruz eta egokia iruditu zaigu ebazpen honetan jartzea.

- Pala eta paleta jokoak eragindako eragozpenak

Gogoan izan behar dugu aisia eta kirol arloko jarduera intentsibo baten aurrean gaudela, sortzen den zarataren bolumenak arauak aurreikusitakoa gainditzen duela eta kutsadura akustikoko faktore bat dela, zehatz esateko.

Zentzu honetan, arkitekto teknikoaren txostenak dio:

"El tratamiento que se le debería dar a éste (frontón) es el de un espacio público (vía pública) más como lo es cualquiera de las plazas, parques, paseos, etc... que hay a lo largo de la vía pública del municipio de Deba y que sea únicamente el control de un uso cívico y correcto"

Ez dugu iritzi horrekin bat egiten, zuhurtasun printzipioa erabilia.

Botere publikoen zeregina da bide publikoko zaraten iturriak kontrolatzea eta aurrea hartzea, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean aurreikusitako





terminoetan. Lege honen arabera kutsadura akustikoa da: giroan zaratak eta dardarak egotea, sortzen duen igorle akustikoa dena delakoa izanda eta horrek eragozpenak, arriskuak edo kalteak sortzea pertsonei, jardueren garapenari edo edozein izaeratako ondasunei edo ingurumenean eragin nabarmenak eragitea. Lege honen 6. artikulua gai honi buruz onartutako udal ordenantzak berariaz egokitzeko eskatzen du. Bere eremutik kanpo uzten dituen bakarrak etxeko jarduerak edo auzotarrenak dira, ordenantzan jasotako muga onargarriak gainditzen ez badituzte. Laneko jardueren ondoriozko zarata ere salbuetsita geratzen da.

Horregatik, gure iritziz, kirol edo aisia arloko jarduera honetan bide publikotik ingurura zarata igortzen denez, zarataren eta kutsadura akustikoaren legedian aurreikusitako zehaztapenen mende dago.

Gauzak horrela, bide eta espazio publikoetatik datozen zaraten iturriak (kasu honetan pilotalekua eta bertan garatzen diren kirol eta aisia arloko jarduerak) arautzeko udal araudia egokitu egin beharko da kalitate akustikoaren zehaztapenak bete ditzan eta sor daitekeen kutsadurari aurrea hartu eta zuzen dadin.

Horregatik, denen ondasunen erabileran partikularren arteko gatazkaren eremuaren gainera dauden eragozpenak dira eta ingurumen babesaren arloan sartzen gara, interes publiko argia dagoen soinu igorpenak baitira. (Zentzu honetan Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 412/2011, ekainaren 8koa, BOSGARREN OJ, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren martxoaren 16ko 216/2006 Epaiko HIRUGARREN OJra igortzen duena).

Beraz, ez da hiritarren erabilerako kontu hutsa, udal instalazioetan egiaztatu denez, ez baititu erabileran normalarekin finkatutako gehienekoak baino zarata handiagoak sortzea saihesteko baldintzak betetzen, udal teknikariek egindako adituen probetan ikusi denez.

Beraz, Udalak bermatu egin behar du gorabehera akustikoa. Are gehiago zarataren iturria titulartasun publikokoa bada.

Esan dugun bezala, kasu honetan ez dago jarduera finkatu, zehatz eta puntualik, baizik eta edozein unetan erabil daitezkeen instalazioak dira, erabileran nahiko intentsukoak, gaez erabiltzea galarazita egon arren.

- Kultur izaera eta jai giroko hainbat jarduera frontoian antolatzeagatikerorritako eragozpenak

Debako 2007ko martxoko arau subsidiarioetako 80. artikulua arabera:

“Arau hauen eskutik egoitza erabilerako zonetan onartzen den jarduera orok indarreko legediak eskatzen dituen sistema zuzentzaileak izango ditu,





zaratak, bibrazioak edo usainak direla eta sor ditzakeen eragozpenak mugatzeko."

Era berean, 263.2 artikulua, berariazko prebentzio irizpideen izenean, honakoa ezartzen du:

"Zarata iturritzat har daitekeen jarduera edo instalazio bat ezartzean, aldameneko esparruekiko bereizketa orok gutxienez 50 db-ko isolamendu akustikoa bermatu beharko du eraikuntzako elementu horizontal eta bertikaletan eguneko ordutegian, eta 60 db-koa gauezkoan, era mugatuan izan arren."

Amaitzeko, 265. artikulua galarazi egiten du bide publikoan irratiak, telebistak eta abar erabiltzea (musika aparatuak oro har) eta antzeko jarduerak ere galarazi egiten ditu, 231. artikuluan ezarritako mugak gainditzen badituzte, nahiz eta **egoera berezietan**, festetan, eta abar baimendu ahal izango diren.

Erakunde honen iritziz egokia da Udalak baimen horiek emateko baldintzak kontrolatzea. Are gehiago, xedapenak berak ezartzen du *"egoera berezietan"* baino ezingo direla egin.

Hori guztia ikusita, musika tresnak, irratiak eta gainerako musika tresnak erabiltzea galarazita dagoela pentsa daiteke; are gehiago indar handiko musika ekipoak erabiltzea.

Kexan dauden datuak eta Udalak igorritako informazioa ikusita eta gainerako gogoetak kontuan izanda, igortzen ditugu honako

Ondorioak

Debako Udalak Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean jasotako ikuskatzeko eta zigortzeko gaitasunarekin jarraitu behar du eta beharrezko neurriak hartu behar ditu, ezarritako kalitate akustikoko indizeak betetzeko.

Debako Udalak kontuan izan beharko ditu aisia-jai arloko ospakizun batzuek sortzen dituzten zaratak eta eragozpenak, baimen bereziak ematerakoan eta, horrelakoetan eragozpen horiek txikitzeko neurriak ezarri beharko dira.

